

## **KONTZEJU IREKIAK ERATZEKO ARAUAK**

Kontzejuetarako hauteskunde partzialak egin ondoren, presidente berria bere karguaz jabetzeko bilkura egin behar da.

Legez kontzeju Ireki hauek eratzeko berariazko arauak ez daudenez, zirkular honen bidez arau xume batzuk eman nahi izan ditugu, udalak eratzeko ezarritako arauak kontzejuetan ere zentzuz ezartzeko.

### **I.- Aldez aurretiko baldintzak**

a) Lehendakari hautatuak, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du kontzejuaren idazkaritzan. Halaber, eskualdeko hauteskunde-batzordeak lehendakari aukeratuaren nortasuna bermatuko duen ziurtagiria igorriko dio kontzejuari eratze-bilera egin aitzinetik.

b) Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeko 75. artikulua arabera, korporazioetako hautetsiek, beren karguaz jabetu aitzin, bateraezin gerta dakizkiekeen egoera guztien aitortpena egin beharko dute, hala nola diru-sarrerak ekartzen dizkieten edo ekartzen ahal dizkieten jarduera guztien aitortpena, baita dituzten ondare-ondasunen aitortpena ere. Kontzeju Irekien araubide bereziak (herritar guztiak dira kontzejukide lege-aginduz) ezarritakoaren arabera, betebeharrak hori ez legokieke Kontzeju Irekiko kideei, eta, beraz, zalantzarria da lehendakariari betebeharrak hori eska dakiokeen ala ez. Hala ere, kontzejuak egoki ikusten badu aitortpen horiek egitea, NUKFn baditugu horretarako ereduak.

c) Aurreko bilkuraren akta onartu beharko da eratze-bilkura egiteko hauteskunde-legeriak adierazitako data baino hiru egun lehenago. Kontuan hartuta korporazio berriak eratzeko eguna abenduaren 7an izanen dela, eta baldin eta kontzeju berria lehenagotik eratu ez bada, kitapen-bilera abenduaren 4an egin beharko litzateke, soilik aurreko bilkuraren akta onartzeko.

d) Eratze-bilkuraren deia lehendakari eginkizunetan diharduenak egin behar du, gutxienez bilera eguna baino bi egun baliodun lehenago, eta, ahal dela, aurreko atalean aipatu dugun kitapen-bileraren ondoren. Deialdian, bileraren ordua eta lekua aipatuko dira; hau da, kontzeju-etxeko bilkura-aretoa.

### **II.- Kontzeju Irekia eratzea**

Aipatu dugunez, kontzejua eratzeko bilera abenduaren 7an egingen da, eta Kontzeju Irekien kasuan, al bait garapen xumea izan behar du, bilera horretan ez baita lehendakaria aukeratu behar, izan ere, lehendakaria azaroaren 17an hautatutakoa izanen baita.

Lehenagotik eratuta ez balego, alde aitzinetik Kontzeju Irekiko kideen identitatea egiaztatu behar da; horretarako, Kontzejuko hautesle-eroldaren zerrenda ziurtatua erabiliko da.

Ondoren, adineko mahaia osatuko da, bertan diren kontzejuko kiderik zaharrenak eta gazteenak osatuta. Idazkaria mahaiko gazteena izanen da, eta mahaiburua zaharrena. Mahaiaren eginkizun nagusiak dira Kontzejua eratutzat jotzea, lehendakari hautetsiaren kredentziala eta egiaztagiria ziurtatzea, eta horri zina edo promes hartzea.

Lehendakaria bere karguaz jabetuta, eratze-bilerari amaiera emanen dio.